

EGUARRI KANTA SARIKETA

XABIER

Gure errian Eguarri jaietako egintzaren artean, bada bat jendeak onartu berezi bat eskeintzen diona, berau Eguarri kanta sariketa degu eta beronetaz nai nuke nere idazlan onetan bere izaeraren txeeatasun batzuek azaldu.

Gure arteko guda amaitu ondoren, 1959,go urteraino Eguarri jaietako egintzaren artean izan ziran eskoletako gazte-xoen artean Parroki elkarteak antolatuta sariketa batzuek, baina urte ontan sortu berria zan Ereintza elkarteak jai oneri giro berri bat eman nairik, Azaroaren 18,ko dei bat egin zuan erriko elkarteari, guztien artean egitaratu berri bat sortzeko Eguarri jaiak gai arturik.

Batzar bat egin zan Urdaburu elkartearen eta bertan bildu ziranak auek izandu ziran, Touring, San Luis Kong, Alkartasuna, C.A.R., J.O.A.C., Mariaren alabak, Urdaburu eta Ereintza; Gau Txori elkarteak naiz ez parte artu batzar arretan bere laguntza diru kontuan eskeini zuan.

Beste erabaki batzuen artean Eguarri kanta sariketa eraztea onartzen da eta berau lenengo aldiz aurkezteko Mariaren alabak arduradun izatea akordioa artzen da. On Bide zinean egin zan lenengo sariketa au eskoletako gazte-xoen artean bertan bi malla izanik, A.- Mallan 200.- 150.- 120.- iru aurrenengoentzat sariak izanik; B.- Malla 150.- 120.- 90.-; talde apañarentzako 100 pta. sari berezi bat ere izan zan, beste partaide sarigabekoentzat gozokiak banaturik.

Sariketa onek arrakasta gutxi izandu zuan eskol ume artean sariketa bezela egin zalako eta urrengo urtean (1960) Ereintza eta A.C. Femeninak elkarturik bere gain artzen dute antolaketa erriko eta euskaldun giroa emanik bertako oniarrieran bearrekoa izanik bi abesti abestea baiñan euskal itzarrekin, bai ta ere abesti bitxienera sari berezi bat emanik eguarrri kanta sorta ugaritzen jarraitzeko.

Udal etxeko arkupeetan egiten da urte onetako jai bañan aurreroko urtean bezela ez da ugaritasun askorik partaideen, ikusten da eskoletako aurrak bildur diotela epai maiekoen aurren abestea edo berdin jendearen aurrean, urte onetan diru kostea guztira 2.800 pta. izan zan lenengo saria San Jose eskola eta Telleri Aldekoen artean lenengo ta bigarren saria banaturik; epai maiekoak auek izan ziran, Teodoro Goñi, Angel Mari Torrecilla eta Jabier Olascoaga.

Sariketari bultzakada berri bat eman nairik, 1961,garrean Ereintzak bere gain artzen du antolaketa bi malla ipintzen ditu bat gastetxoetaz eta bestea aundiagoentzat, gazte taldeen artean grina bat sorturik onela talde berriak sorturik bai elkarte eta bai lagun artean eta onela sariketak beste itxura bat artzen du onurakorra izanik guztientzako jende eta partaideentzat, onela jarraitzen du errikoen arteko sariketa onek arrakasta onarekin 1972,go urteraino; bañan Ereintzak geigo nai du eta urte onetan Errialdoko malla ematen dio oniarri berarekin bañan sari obeagoarekin eta onela gure artean Pasaia, Oartzun, Ondarrabi, Uranzu, Lezo eta Altzak bere taldeak aurkesten dituzte eta ain erriko ez izaetearren talde bakoitzak iru partaidedatik bat abesbatzetan edo koru Parrokialetakoak izan litezke era onetan taldeak malla obetokoak izanik moldakera obeagoakin sariketara azalduz.



*Concurso de Villancicos.
Jarrintzi taldea.*

Orrela jarraitzen dute talde ugari eta goi mallako sariketak izanik eta 1983,garren urtean Ereintza Elkarteko sortutako zillarrezko estaiak izanik, oroigarri berezi bat ipintzen du sei alditatik aurrera parte artu dutenen artean berauen tartean sei talde izanik; Oartzungo Izotz eta Aldeguna taldeak, Altzako Neska Alaiak eta Erreteriko Ikastola Oorereta, Garrintzi eta Pakezaleak gaiñera adierazirik 1973,tik 1983 bitartean ogeita amazasp taldek parte artu izanak dirala Errialdoko sariketa auetan. Sariketa aldimauek urteetan zear agertoki desberdina izan dituzte bein edo bitan Antzoki barruan bañan geienan eudi eta otza lagun izan da, auen artean Parrokiko Biltokia Zine On Bide eta Batzokikoa, Eleiz atari, Udal etxeko arkupeetan, Foruan plazan (Emen geienetan aterperik gabe) alaz ta guztiz jendean egoera beti ona izanik irabazleen zerranda azaldu arte tinko egonik naiz egurraldia ez nolanaikoa izan Onela azken urterarte ikusirik bai jende eta bai abeslariak ez zeukatela bear bezelako antzezlekurik ez abestu ta ez entzuteko (naiz errikoiaigua izan lekua) eta sariketari beste malla bat emetko reina zineman ospatzea erabakitzen dute Ereintzatarak, gaiñera urte onetan eta aurrerako len errialdetako zan bezela Probintziala izan dedilla, bañan bere errikortaruna ez galtzearren partaide diran taldeak erriko besterretan sariketa amaitu ondoren beren abeste berriak abesteko eskatzen zaiete.

Azken sariketa 1986,go Abenduan 27,an izan zan bertan amalu taldek parte arturik eta ain jarrera ona ikusirik ta egin-tza baterako talde asko iruditurik goiz ta arratatsaldean egin ziran saioak.

Goizez bost talde gazte-xoenak izan ziran beren artean sailketa au izanik.

Lenengo ta bigarren saria banatu zan.

Oorereta Ikastola eta Izotz Txiki Oartzungoen artean 18.500,- Pta. bakoitzak.

3.º - Florida taldea - Hernanikoa	14.000,- Pta.
4.º - Txinparta - Lezokoa	13.000,- Pta.
5.º - Ereñozu - Hernanikoa	9.000,- Pta.

Arratsaldeko saioan sailketa au izandu zan.

1.º - Kaskabeltz - Errenterikoa	25.000,- Pta.
2.º - Xunprino - Errenterikoa	20.000,- Pta.
3.º - Pakezaleak - Errenterikoa	16.000,- Pta.
4.º - Nahikari - Errenterikoa	13.000,- Pta.
5.º - Garrintzi - Errenterikoa	11.000,- Pta.
6.º - Itzurun - Zumaia	9.000,- Pta.
7.º - Pkia Buen Pastor - Donostia	8.000,- Pta.
8.º - Azpeitiko Institutua - Azpeiti	6.000,- Pta.
9.º - Aratz Taldea - Donostia	5.000,- Pta.

Epai maiekoak goizean, Itziar Martinez (abeslaria) J. Busto (Eskifaia abestaldeko) zuzendaria eta Ignacio Lecuona (Errenteria Musikaleko zuzendaria) - Arratsaldez M. Zendoia, (Ingenieros koruko Zuzendaria) Javier Busto eta Maite Oca (Ondarrabiko Eskifaiaiko zuzendariak) eta Jose Antonio Sainz (Orfeon Donostiarrako zuzendari berria).

Eguarri Abesti bitxienari; Belengo kalejira. Lezoko Txinparta abestua eta Xanti Espinak antolatua.

Jaskera errikoieneri saria; Errenteriko Xunprino taldeari bieri 8.000,- bakoitzak. Sariketa auek antolatzeke diru laguntza, Iriko Udal etxe eta Aurretski kutxa Probintzuala izandu dira urteetan zear berauen laguntzarik gabe utsa izango litzake Ereintzatarren lana.

Urteetako epaimaiekoen artean Korostola anaiak (Musikalariak) J.L. Ansorena, I. Erauzkin, N. Amantegi, J. Otamendi, I. Goñi, (Koru zuzendariak) J. Soldevilla (Euskadi Orkestakoa) S. Salaberria, J.M. Ustoa, J.M. Balerdi, I. Elizazu (Abeslariak) J.M. Amiano (organista) eta beste batzuek zerrenda luze batean.

Orra emen Ereintza Elkartek beste egintza askoren artean urteroko sariketa au nola antolatzen duan, benetako lan onurakorra kultura mallan erriaren alde egiten duana, Benetan eskertzeke lana Errenteriar bezela Eguarri kanta berriak entzun arazi eta Eguarri jai giroa euskeldun kutsuan mantendu eta bizi arazten digutelako.

Jarrai beti onela gure erriaren onerako beartua bai dago bere nortasunari eusteko zuek bezelako elkarteak eredun bezela jarri.

Eskerrikasko Ereintza eta jarrai beti sendotasun orrekim urte askuan.